



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2017ko AZAROA - 188. zenbakia

Ahots Baten sormen egonaldian izena emateko epea, zabalik

Abenduaren 26tik 30era izango da egonaldia Zestoako Sastarrain baserri eskolan. Azaroaren 20ra arte eman ahal izango da izena.

Urte osoan antzerkia, bertsolaritza, kantagintza edota literatura lantzen diharduten gazteek aurten ere izango dute Gabonetarako planik. Hirugarren urtez jarraian Ahots Baten sormen egonaldia antolatu dugu, gazte sortzaileei zuzenduta.

Aipatutako adierazpide horiek landuko dituzte egonaldiko egun bakoitzean eta horretarako, gainera, gaian aditu eta aritu direnen esperientzia eta gomendioak entzuteko aukera izango dute bertatik bertara. Iaz, esate baterako, ITU literatur bandakoak, Joxe Mari Agirretxe Porrotx

antzezlea, Anari kantaria eta Julio Soto eta Miren Amuriza bertsolariak hurbildu ziren Zestoako Sastarrain baserri eskolara, hangoen bidelagun gisa.

Abenduaren 26tik 30era izango da egonaldia, aurten ere, Zestoan. 15-21 urteko gazteek eman ahal izango dute izena. Horretarako, www.mintzola.eus webgunean dagoen formularioa bete edo 943 69 38 70 zenbakira deitu beharko da. Azaroaren 20ra arte izango da horretarako aukera. Gehienez 40 laguneko taldea izango da, eta taldea osatzeko, izen emate ordena eta alorren

arteko oreka hartuko dira kontuan. Informazio gehiagorako ere, bide berak erabil daitezke.

2015ean hasitako bidea

Mintzola Ahozko Lantegiak euskarazko ahozko beste adierazpideekin elkarlanean antolatutako bidean abiatutako egitasmoa da Ahots Baten. Hala, Mintzola Ahozko Lantegiarekin batera aritu dira antolaketa Ikastolen Elkarte, Bertsozale Elkarte, Euskal Herriko Antzerkizale Elkarte, Euskal Kantuzaleen Elkarte eta ipuingintzako zenbait aditu eta aritu.



Zestoako Sastarrain baserri eskolan batuko dira abenduaren 26tik 31ra.//XDZ



**MAIALEN
LUJANBIO ZUGASTI**
Getxo
2017-IX-22

*Jakinduriek mundue erreko dau
#bertsozientzia emanaldia*

Doinua: Espainian behera

Asko tentatu gabe
leihoaren ertza
kaixo zuri Algorta
bada bai jendetza!
Gaur batuko ditugu
zuria ta beltza
zientzien poesia
lanbroa, ametsa
eta poesiaren
zientziarik eza. (bis)

F.C.BAIIENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredakzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xempelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazio@bertsozale.eus

Bertxoko eta Hernandorena sariketak **jokatuko dira udazkenean**

Bertsolari gazteak plazaratzeko helburuarekin, Bertxoko sariketa antolatu dute azaroan Araban, eta Hernandorena sariketa urriaren 27tik aurrera, Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoan. Lehenengoaren finala azaroaren 30ean izango da, Gasteizen; Hernandorenarena, berriz, azaroaren 25ean, Baionan.

Arabian hiru urteko etenaren ostean dator Bertxoko sariketa, Arabako Bertsozale Elkarteen eta Hala Bedi Irratiaren arteko lankidetzari esker. Azaroko bost ostiraletan jokatuko dira saioak, merienda edo afori ostean, elkarte eta tabernatan. Kanporaketak lekoran (azaroak 3), Legutian (azaroak 10), Ozaetan (azaroak 17) eta Izarran (azaroak 24) egingo dira. Finala, Gasteizen izango da azaroaren 30ean, Hala Bedi tabernan, 20:00etan.

Sariketa bikoteka jokatuko da: bertsolari gazte batek eta aritua den beste batek osatuko dute. Guztira, 16 bertsolarik, 8 bikotek, parte hartuko dute txapelketan: Aitor Najera-Jon Ruiz de Pinedo, Aitor Ugarte-Xabi Igoa, Aroa Arrizubieta-Oier Arbina, Markel Yoller-Iker Pastor, Xabier Antia-Iñaki Viñaspre, Unai Anda-Paula Amilburu, Martin Abarrategi-Peru Abarrategi eta Asier Rubio-Manex Agirre.

Hernandorena, hasierako eredura

Aldaketekin dator aurtengo Hernandorena Sariketa. Azken urteetan egun bateko sariketa izan den arren, lau eguneko izanen da aurtengoa; hala, hiru kanporaketa eta finala izango

ditu. Berrito ere hasiera batean ospatzen zen eredura itzuliko da, beraz.

Kanporaketak Donibane Garaziko gaztetxean (urriak 27), Atharratzeko Prefosta Elkartearen (azaroak 3) eta itsasuko Goxoki gaztetxean (azaroak 17) jokatuko dira, 21:00etan. Bertako gazteek antolatuko dute saio bakoitza Bertsularien Lagunak Elkarteen eskutik. Finala Baionako Zizpa gaztetxean izango da, azaroaren 25ean, 21:00etan.

Saio bakoitzean 6 bertsolari izanen dira lehian eta 3 epailek puntuatuko dituzte haien lanak. Orotara, 18 bertsularik hartuko dute parte: Peru Abarrategi, Aratz Igartzabal, Maider Arregi, Koldo Gezuraga, Aitor Bizkarra, Sarai Robles, Kerman Díaz, Maialen Akizu, Asier Rubio, Nahia Sasco, Maddi Sarasua, Unai Mendiburu, Aitor Servier, Eli Pagola, Elixabet Etxandi, Jon Gurrutxaga, Joanes Illarregi eta Asier Galarza.

Sariketa hauei buruzko informazio gehiago, www.bertsozale.eus orrialdean.

Bertso Udalekuen 20. urteurrena **ospatuko da Amurrion azaroaren 19an**

Urte horietan hezitzaile aritu direnentzako bazkaria antolatu da; txartelak salgai daude www.bertsozale.eus atarian.

Bertso Udalekuek 20 urteko ibilbidea egin dute jadanik. Hori ospatzeko, bazkaria antolatu da Bertso Udalekuetan hezitzaile aritu direnentzat, zuzendari, sukaldari zien begirale. Azaroaren 19an izango da Amurrioko gaztetxean, 14:00etan. Egund berean Txapelketa Nagusiko finalurrekoa izango da Amurrion bertan, arratsaldean. Bazkarirako txartelak www.bertsozale.eus atarian eskuratu ahal izango dira, 15 euroren truke, azaroaren 12a baino lehen.

Udaz uda, udalekuetako 114 txanda gauzatu dira, 207 hezitzailek parte hartu dute eta 3.500 haur eta gazte izan dira ekimen berezi horren parte. Ospatzekoa 1998an Hazpainen abiatu zen abenturak emandako fruitua, hainbeste hezitzaile, bertsolari zein guraso festazaleri esker egindako ibilbide oparoa.



Udalekuetan begirale ibilitakoak batuko dira Amurrion.//XDZ

Berriak jaito ginen liburua izango dugu nobedade Durangoko Azokan

Ohi bezala bertsoaritzak izango du bere tokia Landako Gunean, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen eta Lanku Kultur Zerbitzuen eskutik. Bertsoaritzari loturiko materiala izango da eskura, baita emanaldi eta aurkezpenak ere.



Bertsozale Elkarteko bazkideok deskontuak izango dituzue gure mahaietan. //XDZ

Euskal Herriko Bertsozale Elkartek eta Lanku Kultur Zerbitzuak enpresak bertsoaritzarekin lotutako materiala jarriko dugu aurtengoan ere Durangoko Azokan eskuragai. Aurtengo nobedadea Jon Maia bertsoariaren *Berriak jaito ginen* liburu autobiografikoa izango da, eta gure mahaietan egongo da salgai. Noski, bertsoaritzarekin lotutako material gehiago ere edukiko dugu gure mahaietan. Gogoratu Bertsozale Elkarteko bazkideok deskontuak izango dituzuela salgai dauden produktuetan.

Bestelako presentzia ere izango du bertsoaritzak azokan. Izan ere, Durangoko Azokaren baitan dagoen Ahotsenea gunean emanaldi eta aurkezpenak eskainiko dira.

Ahotsenea guneko emanaldiak

Azokaren bigarren egunean, abenduaren 7an, *Berriak jaito ginen* liburuaz ariko da Jon Maia; eguerdiko 12:00etan izango da hori. Hurrengo egunean, *Harria maitasun istorioa* emanaldia eskainiko du Iñaki Perurenak, 17:00etan hasita. Larunbatez, abenduaren 9an, eta eguerdiko 12:00etan, *Erradikalak gara* emanaldia eskainiko dute Ane Labaka eta Beatriz Egizabalek.

Laster izango duzue informazio gehiago www.bertsozale.eus eta www.lanku.eus atarietan.

Azaroaren 9an abiatuko da Bertsoaroa

Bertso saioak, emanaldi bereziak, kontzertua, dokumental baten proiektzioa eta Txapelketa Nagusiaren azken finalaurrekoa izango dira egitarauan.

Nafarroako Bertsozale Elkartek eta Iruñeko Udalak bertsoarekin lotutako emanaldi sorta antolatu dute urtero bezala. Azaroaren 9an hasiko da zikloa eta abenduaren 2ra arte luzatuko da. Hala, bertsoarekin lotutako hainbat emanaldi ikusi ahal izango dira Nafarroako hiriburuan, oso desberdinak diren formatuetan.

1991 abiatu zen Bertsoaroa zikloa Iruñean, bertsoaritzaz zabaldu eta kalitatezko saioak eskaintzeko asmoz. Orduetik, urtero antolatu dute emanaldi sorta Nafarroako Bertsozale Elkartek eta Iruñeko Udalak, elkarlanean.

Denetarikoko egitaraua

Azaroaren 9an eta 23an, biak ere Iruñeko Gurutze Plazako institutuan eta 20:00etan, bertso saioa eskainiko da. Azaroaren 16an gazteen bertso saioa izango da Kondestablen; 19:00etan izango da azken hitzordu hau, Kondestablen, 19:00etan.

Azaroaren 14an, Kondestablen, *Kafkaren aulkia* emanaldia eskainiko da 19:00etatik aurrera. Ordu eta toki berean baina azaroaren 21ean *Mundu bat ahoz aho* dokumentala eskainiko da, Beñat Gaztelumendi zuzendaria ere bertan dela. Haurrentzat ere bada eskaintzarik eta azaroaren 18an Civivox Iturraman, 12:00etan eta 18:00tan, *Itoitz, urpeko ipuinak* kontaketa musikatu izango da gozagai.

Azaroaren 28an, kontzertua eskainiko da Terminal tabernan. Bi Bala taldearen kantuek hartuko dute aretoa 20:00etatik aurrera.

Amaitzeko, abenduaren 2an, Bertsoaroak Bertsolari Txapelketa Nagusiarekin egingo du bat: Anaitasun egingo baita, 17:00etatik aurrera, txapelketako azken finalaurrekoa.



Puntu jarrita

IMANOL LIZARAZU ILLARRAMENDI
"HABANA"

Ba ezagutzen nautenentzat arraroa iruditu arren bertso kontu gutxi ibai. Azken aldian gehiagotan baino gehiago egiteak arduratzen naik, adinari zor agian baina lau urtetik behin epaimahairatzen garenon artean beti egon duk lehiako joeratxo hori. Erakusleihoko lehen ilaran egon nahi horrek oztopatzen dik bertso berez den bezela ikustea hain zuzen. Egari zor neroni ere itsutu naik lehiak baina ohartu nauk bertsoari leial izateak lehiarako leihatila ixten duela. Bertsoak egin gaitik gu eta ez alderantziz.

Ni ere hi bezala utzi aldi luze batean izan nauk orain bi urteko Gipuzkoakotik, herriarteko txapelketa salbu. Etzioat kantatzeari utzi (nere kasuan ezinezkoa duk hori neure buruarekin askotan aritzen bainauk) baina bai jendaurreko jardunari.

Txapelketak bestalde ez naik oraingo gehiegi kitzikatzen. Gazte hasi ninduan ni ere eta ohartu nauk zenbakieko morbo gehiago diatela diskurtsoak baino. Ni hizketan bezala kantatzeak asetzen naik, garai bateko bertsolarien jarioak, goitik beherako bertso josiek. Egun bazirudik garrantzia galdu duela jostura naturalak, adibide garbi duk azken belaunaldien deserosotasuna puntu erantzunen ariketetan. Moldeko bertsolaritzaren aroa duk eta hor moldatzen denak asko egina zeukak. Orain ere gu korrontearen aurka, kar kar kar...

Egia duk guk txikitatik bizi izan diagula txapelketaren presentzia, eskolartekoak etab. Baina plazaren xarmatik oso urrun egon gaitukela iruditzen zaidak. Susmoa diat askotan epaimahaikoari begira gehitxo kantatzen diagula, bertsoaren zati garrantzitsu bat (garrantzitsuena agian) erdi ahaztuz.

Zer iruditzen zaik Egoitz () Eizagirre txapelketek edo plazek aberasten ditek bertsolaritza gehien?

Koplak

Bertso-kantaera eskola Gasteizen

Prosodiaren hainbat alderdi landuko dira Ainhoa Aizpurua eta Iñaki Viñaspreren eskutik urritik abendura Arabako Bertsozale Elkarteak antolatu duen ikastaroan. Ahotsa, jarrera, etena, tonua, tempoak, melodia... modu praktikoan landuko dira Gasteizko Araba Zentroan, ostiraletan.

Poto-Finixa



Itzali musika: hastera doa aulki jokoa!

Xepelar Dokumentazio Zentroa

Transmisio eragilea behar du Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak

Urtebeteko ordezkapena egiteko transmisio eragilea behar du Bertsozale Elkarteak. Azaroaren 15era arte bidali ahal izango da Curriculum Vitae transmisioa@bertsozale.eus helbidera. Informazio gehiago www.bertsozale.eus atarian.

**BERRIAK
JAIO
GINEN**

JON MAIA SORIA

**LIBURU
BERRIA!**

Liburua erosteko eta informazio gehiago jasotzeko:

Lanku
www.lanku.eus
943 26 07 55

PUBLIZITATEA